



DEBA
HIRIKO UDALA
(Euskara Batzordea)

SAN JUAN SUA

- Ekainean egiten da: EKIak (hau da, eguzkiak) GAINA hartzen duen garaian. Gaur egun 23an egiten den arren, lehen hilaren 21ean egiten zen, egunik luzeena eta gaurik laburrena delako. Udako solstizioan sartu garela, uda iritsi zaigula ospatzen dugu. Hemendik aurrera egunak berriro laburtzen eta gauak luzatzen hasiko dira eguberriak arte. Udako festa bat da beraz eta sua eta ura dira hura ospatzeko bi elementu nagusienak (San Juan izena kristautasuna hedatu ondorengoa da).
- Suak eguzkia irudikatzen du, hark bezalaxe, argia eta berotasuna ematen dizkigulako. Eguzkia funtsezkoa da bai bizitzeko, bai bizitzarako. Antzina, elektrizitaterik ez zen garaian, eguzkiak argitzen zuen bitartean egiten zen bizimodua: bai lana, baita bizitza soziala ere. Gaua, berriz, erretiratzeko ordua izaten zen, izaki beldurgarrien garaia. Hala dio euskal esaera zahar batek: “eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat”.
- Suak propietate purifikatzaileak ditu. Suaren gainean jauzi eginez gero, gaixotasunetatik eta izpiritu txarrendik libratuko zaitu. Horrexegatik, iaz bezala aurten ere, su handiaren ondoan su txiki bat edukiko duzu. Ausartu eta egizu jauzi. 3 jauzi egin behar dituzu gutxienez, eta gehiagotan nahi izanez gero, bakoitiak izatea komeni: 5, 7, 9,... salto.
- Su hondarrak etxera eraman ditzakezu, etxean su berria egiteko. Uzta babesteko ere erabil dezakezu.
- San Juan egunean eguzkia saltoka ateratzen omen da. Ikusi nahi baduzu, goiz jaiki beharko duzu.
- Indarberritzeko edan ezazu ura beldurrik gabe, San Juan goizeko urak dohain magikoak ditu eta. Mendietako edo herriko iturrietatik egiten baduzu, ondo baino hobeto gainera. Egunsentian, eguzkia atera baino lehen, belar ihintzetan oinutsik ibiltzea baino gauza hoberik ez da. Plazer handia sentituko duzu, seguru. Berdin biluzik bainua hartzen baduzu. Herrian, gainera, aukera paregabea daukazu: ibai eta errekez gain, itsasoa esku-eskura.
- Tximisten beldur bazara, apaindu ezazu etxea elorri zuri eta lizar adarrekin; garai batean oso zabaldua zegoen ohitura hori Euskal Herrian. Baratzerik baldin badaukazu, berriz, lursailean ipini, uzta babestuko dizu eta.
- Herriren batean diotenez, gauerdian, harriak ogi eta ura ardo bihurtzen omen dira. Gaua janariz eta edariz ase pasatzeko modua hortxe daukazu bada. Baina, kontuz, gauerdia puntu-puntu harrapatzen ez baduzu, gizotso bihurtuko zara!

Hona hemen, beraz, aukeraz betetako gaua, ez ezazu alferrik galdu eta gozatu!
IKIMILIKILIKLIK!



DEBA
HIRIKO UDALA
(Euskara Batzordea)

HOGUERA DE SAN JUAN

- Se hace en junio (ekaina, en euskera) cuando el sol (EKIa) está en lo más alto (GAINA). Aunque hoy en día se celebra el 23, en su origen se hacía el 21 porque era el día más largo y la noche más corta. Celebramos la llegada del solsticio de verano. Desde este día en adelante los días se irán acortando y alargando las noches hasta navidad. Es, por tanto, una fiesta de verano y la celebramos mediante dos elementos muy importantes: el fuego y el agua (el nombre de San Juan es posterior al cristianismo).
- El fuego simboliza el sol, porque nos da luz y calor como aquél. El sol es imprescindible para vivir y para la vida. En la antigüedad, cuando no había electricidad, tanto el trabajo como la vida social estaban condicionados a los momentos del día. La noche, en cambio, era para las criaturas temibles, momento de retirarse. Así lo confirma un proverbio vasco: “el día para los del día, la noche para los de la noche”.
- El fuego posee propiedades purificantes. Saltando sobre el mismo, te librarás de las enfermedades y de los malos espíritus. Por eso, igual que el año pasado, se dispondrá de una pequeña hoguera junto a la grande. Atrévete y salta. Tienes que saltar como mínimo 3 veces y, si quieres hacerlo más veces, conviene que termines siempre en impar: 5, 7, 9,... saltos.
- Puedes llevar las cenizas a casa para hacer un fuego nuevo. También puedes usarlas para proteger la cosecha.
- Dicen que el día de San Juan el sol sale dando saltos. Si lo quieres ver tendrás que madrugar.
- Si quieres retomar fuerzas, bebe agua sin miedo; dicen que el agua de la mañana de San Juan tiene cualidades mágicas. Al amanecer, antes de que salga el sol, puedes andar descalzo sobre la hierba impregnada de rocío. Seguro que sentirás un gran placer. Lo mismo si te das un baño desnudo. En el pueblo tienes un montón de opciones: además de riachuelos y de la ría, tienes el mar.
- Si tienes miedo a los rayos, decora tu casa con ramas de espino blanco y fresno; en un tiempo no tan lejano era muy usual en toda Euskal Herria. Y si tienes alguna huerta puedes ponerlas en la parcela porque protegerán la cosecha.
- En algún pueblo dicen que a medianoche las piedras se convierten en pan y el agua de los ríos en vino. Ahí tienes una buena oportunidad para saciar el hambre y la sed para toda la noche. Pero ten cuidado, si no llegas en el momento preciso te convertirás en hombre lobo.

¡Aquí tienes, pues, una noche llena de diferentes opciones. No la desaproveches y diviértete! ¡KIMILIKILIKLIK!